



euskalmendizale**federazioa**

FEDERACION VASCA DE MONTAÑA  
BASQUE MOUNTAINEERING FEDERATION

# **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

**2015EKO AZAROAREN 7AN  
EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN  
BATZARREAN ONARTUA**

**EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN**  
**DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

**AURKIBIDEA**

	Orrialdea
I. KAPITULUA - XEDAPEN OROKORRAK	3
II. KAPITULUA - DOPATZEKO SUBSTANTZIA ETA METODO DEBEKATUEN ZERRENDA	3
III. KAPITULUA - ERABILERA TERAPEUTIKOKO BAIMENAK	4
IV. KAPITULUA - KOKAPENARI BURUZKO DATUAK	4
V. KAPITULUA - DOPIN-KONTROLAK	5
VI. KAPITULUA - DOPINAREN ARLOKO ZEHAPENAK JARTZEKO PROZEDURA	5
VII. KAPITULUA - DOPINAREN ARLOKO BETEBEHARRAK	7
VIII. KAPITULUA - DOPINAREN ARLOKO ZEHAPEN-ARAUBIDEA	8
IX. KAPITULUA - DOPIN-KONTROLARI BURUZKO DATUAK TRATATZEA	14
X. KAPITULUA - DOPINAREN AURKAKO EUSKAL AGENTZIAREKIKO LANKIDETZA-	14
XEDAPEN GEHIGARRIAK	15
XEDAPEN IRAGANKORRA	15
XEDAPEN INDARGABETZAILEA	15
AZKEN XEDAPENA	15

# **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

## **I. KAPITULUA** **XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua.- Arautegiaren xedea eta dopinaren kontzeptua.-**

- 1.- Euskal Mendizale Federazioaren baitan aplikatu beharreko Dopinaren Aurkako Arautegia erregulatzea da xedea. Arautegi honek ez du urratzen kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legea, hura ere aplikatu beharrekoa.
- 2.- Dopina esaten zaio kirol-errendimendua artifizialki handitzeko substantzia debekatuak hartzeari edo metodo debekatuak erabiltzeari, kirol-arauen aurka. Dopina esaten zaie, halaber, Dopinaren Aurkako Arautegiaren mende dagoen edozein pertsona fisikok edo juridikok Arautegiari egindako urraketei.

### **2. artikulua.- Eremu subjektiboa.-**

Arautegi honen aplikazio-eremu subjektiboa dira hurrengo artikuluko eremu objektiboaren barruko kirolari, pertsona eta erakunde guztiak, euskal federazioen lizentzia dutenak.

### **3. artikulua.- Eremu objektiboa.-**

Arautegi honen aplikazio-eremu objektiboa dira Erkidego mailako kirol-jarduera eta -lehiaketa federatuak, ofizialak izan ala ez izan. Hala, Erkidego mailako kirol-jarduera eta -lehiaketa federatu dira kirol-federazioek halakotzat jotzen dituztenak.

### **4. artikulua.- Dopin-kontrolak egin beharra.-**

- 1.- Euskal federazioen lizentzia duten kirolariak lehiaketaren barruan nahiz kanpoan egin behar dituzte Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak edo arlo horretako eskumenak dituen edozein agintaritzak agindutako dopin-kontrolak eta gainerako probak.
- 2.- Hala egin behar dituzte, era berean, dopinaren arloko arau-hauste batengatik kirol-lizentzia eten eta zigorra betetzen ari diren kirolariak; eta, edozein kasutan, federazioak berriro lizentzia eman aurretik.
- 3.- Kopin-kontrola egin beharra eduki dezake, orobat, kirolari batek federazioaren lizentzia berritu ez eta zentzuzko susmoa dagoenean kirola praktikatzeari utzi gabe lehiaketatik kanpoko dopin-kontrolak saihestu nahian ari ote den, lizentzia eskuratu edo berritu arte.

### **5. artikulua.- Dopin-kontrolak.-**

Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak lehiaketaren barruan nahiz kanpoan agindutako dopin-kontrolak egiten lagunduko dute arlo horretan eskumenak izan ditzaketan edozein lurralde-eremuko eragile publikoek zein pribatuek.

## **II. KAPITULUA** **DOPATZEKO SUBSTANTZIA ETA METODO DEBEKATUEN ZERRENDA**

### **6. artikulua.- Dopatzeko substantzia eta metodo debekatuen zerrenda.-**

Arautegi honen barruan, aplikatu beharrekoa izango da Eusko Jaurlaritzak unean-unean ezarri eta argitaratutako dopatzeko substantzia eta metodo debekatuen zerrenda, eta, halakorik ez balego, Estatuko Kirol Kontseilu Gorenak argitaratu eta indarrean dagoena.

**EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN**  
**DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

**III. KAPITULUA**

**ERABILERA TERAPEUTIKOKO BAIMENAK**

**7. artikulua.- Erabilera Terapeutikoko Baimenak.-**

- 1.- Erreferentziako zerrendan agertzen diren substantzia edo metodo debekatuek erabilera terapeutikoa izan dezakete, gainerakoan arau-hauste izan arren; horretarako baimena ematen da arautegi honi jarraituz aplikatutako xedapen arauemailetako baldintzak eta prozedurak betez.
- 2.- Euskal federazio baten lizentzia duen kirolari batek ongi dokumentatutako eta egiaztatutako osasun-arazo bat duenean eta debekatutako substantzia edo metodo bat behar duenean, Erabilera Terapeutikoko Baimena eskuratu behar du.
- 3.- Baimen bakoitzak ezarrita izango du bere indarraldia. Baimen horrek ez du baliorik izango bere indarraldia amaitzen denetik aurrera. Kirolariaren ardura da baimenaren berrikuntza eskatzea, beharra balego, dagokion erakundeak erabaki ahal izan dezan baimenaren indarraldia amaitu baino lehen.

**8.- Erabilera Terapeutikoko Baimenen Euskal Batzordea:**

Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak, Erabilera Terapeutikoko Baimenen Euskal Batzordearen bidez (COVAUT), kirolariak aurkeztutako Erabilera Terapeutikoko Baimenen eskaerak izapidetu eta ebatziko ditu, arautegi honi jarraituz, bai eta arlo horretan aplikatu beharrekoak izan daitezkeen xedapen arauemaileei jarraituz ere.

**9. artikulua.- Erakunde ofizialek emandako Erabilera Terapeutikoko Baimen baliodunak eta indarrekoak ontzat jotzea.-**

Hemen araututako dopinaren aurkako sistemaren barruan eta Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak eskatutako dopin-kontrolen eta jardueren barruan, Erabilera Terapeutikoko Baimenak baliodunak izango dira indarrean badaude eta AEPSADeko edo nazioarteko kirol-erakundeetako Erabilera Terapeutikoko Baimenen Batzordeek emanak badira.

**10. artikulua.- Erabilera Terapeutikoko Baimenak emateko arauak.-**

Erabilera Terapeutikoko Baimenak emateko arauak dagokionez, une bakoitzean Euskadin indarrean dauden xedapen arauemaileak aplikatuko dira eta, halakorik ez balego, Estatuan indarrean daudenak.

**IV. KAPITULUA**

**KOKAPENARI BURUZKO DATUAK**

**11. artikulua.- Kokapenari buruzko datuak eman beharra.-**

- 1.- Hurrengo paragrafoetan adierazten denaren bidetik, euskal lizentzia duten kirolariak beren ohiko kokapenaren datuak eman behar dituzte, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziaren formularioa betez. Taldeko kirolen kasuan, kirolarien erakundeek hartuko dute betebeharrak hori beren gain.
- 2.- Kirolarien edo haien erakundearen ardura da Dopinaren Aurkako Euskal Agentziari emandako informazioa benetakoa eta nahikoa izatea, lehiaketaz kanpoko dopin-kontrolak burutu ahal izateko.

# **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

- 3.- Banakako Kontrol Plan baten barruan dauden talde-kiroletako kirolariek eta erakundeek beren ohiko kokapena adierazi behar dute aldizka, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziaren formularioa betez.
- 4.- Agindu honetan aipatutako formularioko datuak tratatzeko orduan, bete beharrekoa izango da Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa.
- 5.- Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak tresna bat jarriko du martxan, kirolariek edo erakundeek informazioa garaiz eguneratu edo aldatu ahal izan dezaten, kokapena adierazi beharra ez hausteko.

## **V. KAPITULUA** **DOPIN-KONTROLAK**

### **12. artikulua.- Dopin-kontrolen erregulazioa.-**

Dopin-kontrolak egiteari dagokionez, aplikatu beharrekoak izango dira Euskadin indarrean dauden xedapen arauemaileak edo, halakorik ez balego, Estatuan indarrean daudenak.

### **13. artikulua.- Laginak analizatzeko prozesua.-**

Dopinaren aurka homologatutako laborategiek analizatuko dituzte laginak, eta aplikatu beharrekoak izango dira Euskadin indarrean dauden xedapen arauemaileak edo, halakorik ez balego, Estatuan indarrean daudenak.

### **14. artikulua.- Dopinaren aurkako beste jarduera batzuk.-**

Dopinaren aurkako kontrolak egin ditzakete hartarako eskumenak dituzten organoek eta agintaritzek ere, dopinaren aurkako arautegia urratu ote den egiaztatzeko eta xedapenetan aurreikusitako arau-hausterik egon ote den ikusteko.

## **VI. KAPITULUA** **DOPINAREN ARLOKO ZEHAPENAK JARTZEKO PROZEDURA**

### **15. artikulua.- Hasiera ematea.-**

1.- Diziplina-organoak ofizioz emango dio hasiera dopinaren arloko zehapen-prozedurari:

- a) Laborategiko behin betiko analisisen emaitzak jaso ondoren.
- b) Salaketa egon delako, ziur dakielako edo hala jakinarazi diotelako organo eta erakunde eskudunek, batik bat dopin-kontroletan aritzen direnek, dopinaren arloko ustezko arau-hausteak direla eta.

2.- Dopinaren arloko diziplina-organoak diziplina-espedientea hasi izanaren berri emango die honako hauei:

- a) interesdunari eta, hala balegokio, haren elkarteari,
- b) Dopinaren Aurkako Euskal Agentziari eta kirol-federazioei aplikatzeko xedapenen arabera jakinaren gainean jarri behar diren gainerako erakunde publikoei zein pribatuei.
- c) analisia egin duen laborategiari (kaltetua identifikatu gabe adieraziko zaio ustezko arau-haustea noiz preskribatzen den, eta noiz arte gorde behar diren laginak eta egindako analisiak).

## **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

- 3.- Dopinaren arloko prozedurak federazioaren egoitzan gauzatu dira, instantzia bakarrean, kirol-diziplinako lehen instantziako organoaren aurrean, hura izango da dopinaren arloko diziplina-organo eskuduna, eta federazioaren egoitza horretan ezingo da helegiterik jarri, ez arruntik ez aukerakorik. Prozedura horiek lehentasuna izango dute, ezarritako epeak betetze aldera.
- 4.- Euskal federazio bateko lizentzia baten jabe dena federazioko organo eskudunen mende dago lizentzia horren eskatzaile edo jabe den bitartean, bai eta dopinak eragindako diziplina-prozedura hasi edo jarraitzen bada ere interesdunak euskal federazioaren lizentziarik ez daukanean.

### **16. artikulua.- Instrukzioa.-**

- 1.- Diziplina-espedienteari hasiera ematen dion probidentzian agertuko da instruktore baten izendapena: Zuzenbidean lizentziatua izan behar du, eta federazioko diziplina-organoko lehen edo bigarren instantziako kide izan daiteke edo ez.
- 2.- Administrazio-prozedurako xedapen arauemailetan aurreikusitako abstentzio- eta errekusazio-arrazoiak aplikatuko zaizkio instruktoreari.
- 3.- Interesduna errekusazio-eskubideaz balia daiteke izendapenaren probidentzia jakin duen egunetik 2 egun baliodunen barruan. Errekusazioa aurkeztu duenetik 3 egun baliodunen barruan, errekusazioari buruz ebatziko du diziplina-organoak.
- 4.- Prozedurari ekin ondoren, dopinaren arloko diziplina-organoak edo instruktoreak noiznahi har ditzake egoki iruditzen zaizkion behin-behineko kautela-neurriak, ebazpena eraginkorra izan dadin.
- 5.- Errekusazio-epea igaro ondoren, instruktoreak kargu-orria jakinarazi eta 5 eta 10 egun baliodunen artean emango dio interesdunari, egoki iruditzen zaizkion alegazioak egin eta/edo probak proposa ditzan.
- 6.- Alegazioen idazkia eta proben proposamena edo ekarpena egin ostean, instruktoreak arrazoiak emanez ebatziko du haiek onartu edo ez eta probak egin edo ez, edo hobeto erabakitzeko egokitzat jotako ofiziozko probak egitea. Proposamenak egiteko epea 5 eta 10 egun baliodunen artekoa izango da.
- 7.- Diziplina-organoak eta/edo instruktoreak txostenak eskatu ahal dizkie mediku edo teknikari adituei, eta haiek izapidetzeko epea probak egiteko epearen berdina izango da.
- 8.- Probak eta txostenak egin ondoren, instruktoreak 5 egun baliodun baino lehen ebazpen-proposamena idatzi, interesdunari jakinarazi, eta 5 eta 10 egun baliodunen artean entzunak izateko izapidea emango die.
- 9.- Instruktoareak dopinaren arloko diziplina-organoari aurkeztuko dio espedientea eta dokumentazio osoa, entzunaldian alegazioak jaso ondoren edo, ez bada alegaziorik egin, epea amaitutakoan.

### **17. artikulua.- Ebazpena.-**

- 1.- Dopinaren arloko diziplina-organoaren ebazpenak amaiera ematen dio diziplina-prozedurari, erabakiak hartuko ditu interesdunek agertutako gai guztiei buruz eta espedientearen ondorio direnei, eta bertan azalduko da egindako proben balorazioa, gertatu denaren nondik norakoa eta erantzukizunik dagoen edo ez; halakorik balego, arduradunak jakinaraziko dira, egindako arau-haustea eta ezarritako zehapenak.
- 2.- Erantzukizuna preskribatzeko, iraungitzeko edo hartatik salbuesteko arrazoiak daudenean, ebazpenean hori adierazi eta jarduketak artxibatuko dira.

## **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

### **18. artikulua.- Ebazteko epe maximoa eta goragokoak eskumenak bereganatzea.-**

Dopin-arauak hausteagatik irekitako espedienteak federazioko diziplina-organoak ebatziko ditu 2 hilabete baino lehen, laborategiko azken emaitza diziplina-organoari jakinarazi zaionetik aurrera, edo, bestela, ustezko arau-haustearen berri izan den egunetik aurrera. Dena dela, epe hori espediente ebatzi gabe igarotzen bada, espediente hori edozein izapidetan egonda ere, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak hartuko du bere gain eskumena, eta hark jarraituko ditu aurreikusitako izapideak, espediente amaitu eta ebatzi arte. Hala eta guztiz ere, espediente jakin bateko inguruabarrak direla eta, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak luzatu egin dezake epe hori, baldin eta epea iraungi aurretik inork berariaz eskatzen badu.

### **19. artikulua.- Iraungitzea.-**

Dopinaren alorreko diziplina-prozedura gehienez 6 hilabetean amaitu behar da, prozedura hasi denetik aurrera. Epe hori igaro eta berariazko ebazpenik jakinarazi ez bada, prozedura iraungita geratuko da. Ofizios edo interesdunak eskatuta jo daiteke prozedura iraungitza, eta horrek jarduketak artxibatzea ekarriko du.

### **20. artikulua.- Espedienteen ebazpena jakinaraztea.-**

Dopinaren arloko diziplina-organoak ebazpen baten bidez prozedura bati bukaera emanaz gero, interesdunei ez ezik jakinaraziko zaie Dopinaren Aurkako Euskal Agentziari eta jakinarazi beharreko erakundeei, xedapen arauemaileek hala agintzen dutelako edo ebazpenak eragiten dielako.

### **21. artikulua.- Ebazpenak bete beharra.-**

Diziplina-organo eskudunek ezarritako zehapenak berehala bete behar dira, non eta jarritako helegiteaz arduratu behar duenak hura etetea erabakitzen ez duen.

### **22. artikulua.- Helegitea.-**

Euskal Federazioko dopinaren arloko diziplina-organoak emandako ebazpenen administrazio-berrikuspena egingo da Kirol Justiziako Euskal Batzordearen aurrean. Berrikuspena eskatzeko epea 15 egunekoa da, jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera. Epe hori igaro eta helegiterik jarri ez bada, ebazpena irmoa izango da.

## **VII. KAPITULUA**

### **DOPINAREN ARLOKO BETEBEHARRAK**

### **23. artikulua.- Betebeharrak.-**

Arautegi honen mende dauden pertsonak eta erakundeak bete egin behar dituzte dopinaren arloko xedapen arauemaileetan aipatutako eginkizun eta erantzukizun guztiak. Kirolariek, pertsonak eta erakundeak jakin beharra dute zerbait eginda edo ez eginda dopin-arauak hausten direla, eta ezagutu beharra dute haien kirolean debekatuta dauden substantzien eta metodoen zerrenda.

# **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

## **24. artikulua.- Erantzukizunak.-**

1.- Kirolarien ardura da beren organismoan substantzia debekaturik ez sartzea, eta organismoan halakorik atzemanaz gero, haien erantzukizuna da. Diziiplina-araubidean agertuko da erantzukizuna zenbatekoa den, eta Arautegiko kapitulu honetan adieraziko da erantzukizunaren mailaketa. Hau bete ezean, erantzukizunak eskatuko dira eta Arautegi honetan aurreikusitako diziiplina-neurriak hartuko dira.

2.- Legez kontra egin den edo egin ez den zerbaitek gainditu egiten baditu Erkidego mailako kirol-jarduera eta -lehiaketa federatuak, ofizialak izan edo ez izan, Arautegi honen eremu objektiboaren barruan egonda euskal federazioko lizentzia duten pertsonak eta/edo erakundeek dopin-arauak urratu dituztela joko da, baldin eta lehiaketaren barruan nahiz kanpoan debekatuta dauden substantziak eta metodoak erabili, kontsumitu edo edukiz gero, edo Arautegi honetan aurreikusitako arau-hausteren bat burutuz gero.

3.- Kirolarien, entrenatzaileen, medikuen edo osasun-langileen, kirol-elkarte eta -taldeen ardura da organo eskudunei ematen ez badiete kirolariaren gaixotasunei buruzko informazioa, eta jasotzen ari den tratamendu medikoei buruzkoa. Erabilera Terapeutikoko Baimenak lortzeko baldintzak bete ez edo haiek hautsi izanaren ardura ere izango dute.

4.- Kirolarien, entrenatzaileen eta kirol-elkarte eta -taldeen ardura da kirolarien ohiko kokapenaren berri ematen ez bada.

5.- Kirolarien, medikuen eta/edo osasun-langileen, eta kirol-elkarte eta taldeen ardura da Sendagaien Liburua/Erregistroa zuzen eramatea.

## **VIII. KAPITULUA** **DOPINAREN ARLOKO ZEHAPEN-ARAUBIDEA**

## **25. artikulua.- Arau-hausteak.-**

1.- Oso arau-hauste larriak dira:

- a) Arautegi honen 24.1 artikuluko aginduak ez betetzea, eta, horren ondorioz, debekatutako substantzia bat hautematea, edo haren metabolitoak edo markatzaileak, kirolari baten lagin fisikoetan.
- b) Kirolean baimendu gabeko edo debekatutako substantziak eta metodoak erabiltzea edo kontsumitzea.
- c) Organo edo pertsona eskudunek hala eskatuz gero, lehiaketa barruan edo kanpoan dopin-kontrolak egiteari uko edo aurka egitea -bidezko arrazoirik gabe-, laginak biltzeko edo kontrol-eta zehapen-prozedurak gauzatzeko eskakizunak eragozte, kasurik ez egitea, bidegabeki atzeratzea, ezkutatzea, galaraztea, nahastea edo betetzen ez uztea, zerbait eginda edo ez eginda.
- d) Arautegi honen 24.3 artikuluko aginduak ez betetzea behin eta berriro, eta lehiaketaz kanpoko kontrolak egiteko kirolariak kokatu eta eskura egon beharra ez betetzea behin eta berriro.
- e) Arautegi honen 24. artikuluko 2. paragrafoan aipatutako tratamendu terapeutikoei buruz eta Erabilera Terapeutikoko Baimenei buruz ez informatzea.
- f) Dopinaren kontrol- eta zehapen-prozeduretako edozein osagai aldatu, faltsifikatu edo manipulatzeari.
- g) Kirolean onartu gabeko edo debekatutako substantziak edukitzea edo metodoak erabiltzea, horiek emateko edo agintzeko Erabilera Terapeutikoko Baimenik gabe; orobat, substantzien,



# **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

tresnen edo metodoen bolumena edo kantitatea helburu terapeutikorako gehiegizkoa izatea, arrazoirik gabe.

- h) Kirolariei kirol-jardunean debekatutako edo arauz kanpoko substantziak ematea, eskaintzea edo eskura jartzea, edo halako metodoak erabiltzea.
- i) Debekatutako edo arauz kanpoko substantziak edo metodoak sustatzea, bultzatzea, hartzen laguntzea edo eskura jartzea; baimendu gabeko produktuak erabiltzera edo jokabideak izatera bultzatzea; edo kirolarien esku jartzea kirolean onartu gabeko edo debekatutako substantziak edo metodoak.
- j) Zerbait eginda edo ez eginda, arauz kanpoko metodoak erabiltzen laguntzea edo parte hartzea, edo dopinaren aurkako arautegia urratzea.
- k) Kirolean debekatutako substantziak eta metodoak kirol-zentroetan biltegitratzea, merkaturatzea edo banatzea, edozein eratan. Debekatuta dago kirol-zentroetan produktu horiek kontsumi daitezen bultzatzea ere.
- l) Kiroleko baja iruzurrez lortzea eta erabiltzea, edo hura lortzeko eta erabiltzeko baldintzak ez betetzea edo haustea.
- m) Euskadin noiznahi aplikatzekoak diren dopinaren aurkako xedapen arauemailetan oso larritzat jotako beste edozein egite edo ez-egite.

2.- Arau-hauste larriak dira:

- a) Arautegi honen 24. artikuluko 3. paragrafoko aginduak ez betetzea, eta lehiaketaz kanpoko kontrolak egiteko kirolariak kokatu ahal ez izatea eta eskura ez egotea, non eta ez den behin eta berriro gertatzen, orduan arau-hauste oso larria izango baita.
- b) Arestiko a), b), e) eta g) jokabideak, dagokion tresna juridikoan larritasun txikikotzat jotako substantziak edo metodoak direnean, non eta ez den behin eta berriro gertatzen, orduan arau-hauste oso larria izango baita.
- c) Osasun-jarduerak egiteko kontratatzea, esleitzea edo izendatzea federazio-lizentziarik edo gaikuntza baliokiderik ez duten edo hori etenda duten pertsonak edo erakundeak, jarduera horiek gauzatzeko ezinbestekoa bada; orobat, jarduera horiek egitea federazio-lizentziarik edo gaikuntza baliokiderik gabe, edo hura etenda dagoela.
- d) Arautegi honetan aurreikusitako derrigorrezko liburuak ez eramatea.
- e) Euskadin noiznahi aplikatzekoak diren dopinaren aurkako xedapen arauemailetan larritzat jotako beste edozein egite edo ez-egite.

3.- Frogatzeko edozein tresna baliodunen bidez egiazta daiteke dopin-arauak hautsi izana.

## **26. artikulua.- Kirolariei ezartzeko zehapenak.-**

1.- 25. artikulua leheneko paragrafoko a), b), c), d), e), f), g), j), l) eta m) arau-hauste oso larrietan, lizentzia 2 eta 4 urte artean eten, kendu edo eskuratu ezina ezarriko da, eta, hala balegokio, 3.001 eta 12.000 euro arteko isuna. Jokabide horiek bigarren aldiz gertatuz gero, federazio-lizentzia betiko kendu edo ezingo da eskuratu, eta, hala balegokio, isuna ezarriko da, Arautegi honi jarraituz.

2.- 25. artikulua leheneko paragrafoko h) eta i) arau-hauste oso larrietan, federazioko lizentzia 4 eta 6 urte artean eten, kendu edo eskuratu ezin eta, hala balegokio, 3.001 eta 12.000 euro arteko isuna ezarriko da. Jokabide horiek bigarren aldiz gertatuz gero, federazio-lizentzia betiko kendu edo ezingo da eskuratu, eta, hala balegokio, isuna ezarriko da, Arautegi honi jarraituz.

## **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

3.- Arautegi honetako 25. artikulua 2. paragrafoko arau-hauste larrietan, federazio-lizentzia 3 hilabete eta 2 urte artean eten, kendu edo eskuratu ezin, eta, hala balegokio, 1.500 eta 3.000 euro arteko isuna ezarriko da. Lehen aipatutako legez kontrakoak bigarren aldiz eginez gero, arau-hauste oso larritzat joko da eta federazio-lizentzia eten, kendu edo ezingo da eskuratu 2 urte eta 4 urte artean, eta, hala balegokio, 3.001 eta 12.000 euro arteko isuna ezarriko da. Hirugarren arau-haustea eginez gero, federazio-lizentzia betiko kendu edo eskuratu ezin, eta, hala balegokio, isuna ezarriko da, Arautegi honi jarraituz.

4.- Baldin eta kirolariak, Erabilera Terapeutikoko Baimena edukitzeko justifikazio medikoa izanik, ez badu eskatu, edo aurretik zuen baimenaren indarraldia iraungi bada, lehendabiziko aldian ohartarazpena ezarriko zaio, baldin eta kontrolaren emaitza aurkakoa bada. Kirolariak bigarren aldiz egiten badu arau-hauste bera, arau-hauste larriari dagokion zehapena ezarriko zaio, guztien artean txikiena. Horrek ez du kluba isunetik salbuesten, arretarik ezagatik.

5.- Aipatutako zehapenez gain, ezingo da inongo lehiaketan parte hartu Euskadiko instalazio publikoetan, lizentzia eten, kendu edo lortu ezinak iraun bitartean.

6.- 25. artikuluko lehen ataleko m) idatz-zatiko arau-hauste oso larriak eta 25. artikuluko bigarren ataleko e) idatz-zatiko arau-hauste larriak zehatuko dira dopinaren aurkako Euskadiko xedapen-arauemaileen arabera.

### **27. artikulua.- Kirol-klubei eta -taldeei ezartzeko zehapenak.-**

1.- Arautegi honen 25. artikuluko arau-hauste oso larriak egiteagatik 6.001 eta 24.000 euro arteko isuna ezarriko da, eta, hala balegokio, puntuak edo posizioak galtzea sailkapenean, edo mailaz edo kategoriaz jaistea. Jokabide horietan adingabea den norbait sartuz gero, edo behin eta berriro eginez gero, isuna osagarria baino ez da izango, eta 24.001 eta 50.000 euro artekoa izango da.

2.- Arautegi honen 25. artikuluko arau-hauste larriek 1.500 eta 6.000 euro arteko isuna izango dute. Legez kontrako jokabide horiek bigarren aldiz eginez gero, arau-hauste oso larritzat jo, 6.001 eta 24.000 euro arteko isuna ezarri, eta, hala balegokio, sailkapenean puntuak edo posizioak galdu edo kategoriaz edo mailaz jaitsiko da.

3.- Arau-haustea hirugarren aldiz eginez gero, isuna osagarria baino ez da izango, eta 24.001 eta 50.000 euro artekoa izango da.

### **28. artikulua.- Teknikariei, epaileei, arbitroei eta kirol-lizentziadun gainerako pertsonen, zuzendaritzako langileei, zuzendarien edo kirol-federazioetako langileei, liga profesionaletako langileei, kirol-lehiaketa ofizialak edo ez-ofizialak antolatzen dituzten erakundeei eta kirol-klubei edo -taldeei ezartzeko zehapenak.-**

1.- Arautegi honen 25. artikuluko lehen ataleko b), c), d), e), f), g), j), l) eta m) arau-hauste oso larriak egiteagatik, kirol-karguak betetzeko aldi baterako desgaitu, kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea 2 urte eta 4 urte artean kendu edo eten, eta, hala balegokio, 3.001 eta 12.000 euro arteko isuna ezarriko da. Jokabide horietan adingabea den norbait sartuz gero, edo jokabide horiek bigarren aldiz gauzatu gero, kirol-karguak betetzeko desgaitu, edo kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea betiko kendu edo eten, eta, hala balegokio, isuna ezarriko da, Arautegi honi jarraituz.

2.- Arautegi honen 25. artikuluko lehen ataleko h) eta i) arau-hauste oso larriak egiteagatik, kirol-karguak betetzeko aldi baterako desgaitu, kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea 4 urte eta 6 urte artean kendu edo eten, eta, hala balegokio, 3.001 eta 12.000 euro arteko isuna ezarriko da. Jokabide horietan

## **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

adingabea den norbait sartuz gero, edo jokabide horiek bigarren aldiz gauzatuz gero, kirol-karguak betetzeko desgaitu, edo kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea betiko kendu edo eten, eta, hala balegokio, isuna ezarriko da, Arautegi honi jarraituz.

3.- 25. artikuluaaren bigarren ataleko arau-hauste larriak egiteagatik, federazio-lizentzia 3 hilabete eta 2 urte artean kendu edo eten, eta, hala balegokio, 1.500 eta 3.000 euro arteko isuna ezarriko da. Legez kontrako ekintza horiek bigarren aldiz eginez gero, arau-hauste oso larritzat jo eta kirol-karguak betetzeko desgaitu, edo kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea 2 urte eta 4 urte artean kendu edo eten, eta, hala balegokio, 3.001 eta 12.000 euro arteko isuna ezarriko da. Hirugarren arau-haustea eginez gero, kirol-karguak betetzeko desgaitu edo kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea betiko kendu edo eten, eta, hala balegokio, isuna ezarriko da, Arautegi honi jarraituz.

4.- Baimenik edo gaikuntza baliokiderik eduki gabe arauak hausten dituzten pertsona fisiko edo juridikoek zerbitzuak ematen dituztenean edo kirol-federazioen kontura edo haien eskuordetzez lehiaketa ofizialak edo ez-ofizialak antolatzen dituzten erakundeen kontura jarduten dutenean, edo erakunde horien barruan integratutako pertsonak edo erakundeak, ezingo dute kirol-lizentziarik edo gaikuntza baliokiderik eskuratu, ez kirol-lizentziaren eskubideez baliatu kirol-karguak betetzeko desgaitzeak iraun bitartean, edo kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea kentzeak edo eteteak iraun bitartean.

### **29. artikulua.- Klubetako edo taldeetako medikuei eta gainerako osasun-langileei ezartzeko zehapenak.-**

1.- Taldeko medikuek eta kirol-lizentziarekin edo gaikuntza baliokidearekin osasun-eginkizunak betetzen dituzten langileek Arautegi honetako 25. artikuluko lehen ataleko c), e), f), g), h), i), j), k), l) eta m) jokabideak gauzatzen badituzte, lizentzia 2 urte eta 4 urte artean kendu edo eten, eta 6.001 eta 24.000 euro arteko isuna ezarriko zaie. Jokabide horietan adingabea den norbait sartuz gero, edo jokabide horiek bigarren aldiz gauzatuz gero, federazio-lizentzia betiko kendu, eta, hala balegokio, isuna ezarriko da, Arautegi honi jarraituz.

2.- Taldeko medikuek eta kirol-lizentziarekin edo gaikuntza baliokidearekin osasun-eginkizunak betetzen dituzten gainerako langileek Arautegi honen 25. artikuluko lehen ataleko h) eta i) jokabideetako bat gauzatzen badute, federazio-lizentzia 4 urte eta 6 urte artean kendu edo eten, eta 3.001 eta 12.000 euro arteko isuna ezarriko zaie. Jokabide horietan adingabea den norbait sartuz gero, edo jokabide horiek bigarren aldiz gauzatuz gero, federazio-lizentzia betiko kendu, eta, hala balegokio, isuna ezarriko da, Arautegi honi jarraituz.

3.- Taldeko medikuek eta kirol-lizentziarekin edo gaikuntza baliokidearekin osasun-eginkizunak betetzen dituzten gainerako langileek 25. artikuluko bigarren ataleko jokabideren bat gauzatzen badute, federazio-lizentzia 3 hilabete eta 2 urte artean kendu edo eten, eta, hala balegokio, 1.500 eta 3.000 euro arteko isuna ezarriko zaie. Lehen aipatutako legez kontrako ekintza horiek bigarren aldiz eginez gero, jokabidea arau-hauste oso larritzat jo, federazio-lizentzia 2 urte eta 4 urte artean kendu edo eten, eta, hala balegokio, 3.001 eta 12.000 euro arteko isuna ezarriko da. Hirugarren arau-haustea eginez gero, federazio-lizentzia betiko kendu, eta, hala balegokio, isuna ezarriko da, Arautegi honi jarraituz.

4.- Osasun-eginkizunak betetzen dituzten langileek arau-haustetzat jotako jokabideak gauzatzen dituztenean federazio-lizentzia edo gaikuntza baliokiderik gabe, eta kirol-federazioen, liga profesionalen edo kirol-lehiaketa antolatzen dituzten erakundeen kontura jarduten direnean edo zerbitzuak ematen dituztenean edo erakunde horietan atxikitako pertsonen edo erakundeen kontura jarduten direnean edo zerbitzuak ematen dituztenean, ezingo dute kirol-lizentziarik edo osasun-eginkizunetarako gaikuntzarik

## **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

lortu, ez eta kirol-lizentziari dagozkion eskubideak baliatu ere, kirol-lizentzia edo gaikuntza baliokidea kentzeak edo eteteak iraun bitartean.

### **30. artikulua.- Dopinaren arloko zehapenak ezartzeko irizpideak.-**

1.- Kirolari batek lehenbiziko aldiz egiten duenean Arautegi honetako arau-hauste bat, dagozkion zehapenak ezarriko zaizkio, proportzionaltasun-irizpidearen arabera, egoeraren inguruabarrak kontuan hartuz. Egoeraren inguruabarrak kontuan hartzeko eta zehapena graduatzeko, Dopinaren Aurkako Munduko Kodearen irizpideak erabiliko dira.

2.- Kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legearen 35. artikulua dioenez gain, zehapenak graduatzeko orduan kontuan hartuko dira proportzionaltasun-irizpidea eta kasu bakoitzeko inguruabarrak, batez ere borondaterik izan den, jakinaren gainean egin den, erantzukizun maila eta kalte mota, bai eta erantzukizuna modulatzeko balio dezaketen gainerakoak ere.

3.- Bigarren arau-hauste oso larri bat eginez gero, lizentzia edo gaikuntza baliokidea betiko kendu, federazioan karguak betetzeko betiko desgaitu edo lizentzia betiko kendu, eta, hala balegokio, isunik handiena ezarriko da.

### **31. artikulua.- Isunak ezartzea.-**

1.- Kirol-jardueratik diru-sarrerak dituzten kirolariei soilik ezarri ahal zaizkie isunak.

2.- Ezarritako isunak ordaindu ezean, legerian aurreikusitako tresnen bidez ordainaraziko dira.

### **32. artikulua.- Arau-haustearen ondorio gehigarriak eta emaitzak aldaraztea.-**

1.- Banakako kirol-jardueretan Arautegi honetan aurreikusitako arau-haustek eginez gero, kirolariari sariak edo dominak kendu, emaitzak baliogabetu eta erabat deskalifikatuko da dena delako lehiaketan edo proban, edo lehiaketa edo proba hori sartuta dagoen txapelketetan.

2.- Diziplina-organoek neurri horiek aplikatu ahal dizkiete aurreko edo ondoko egunetan egindako proba, lehiaketa edo txapelketei, geroago egindakoei edo laginak hartu diren egunekoei edo arau-haustea egin den egunekoei.

3.- Talde-kiroletan, Arautegi honen 27. artikuluko zehapenez gain, diziplina-organoek adierazi beharko dute ea egokia den partiden, proben, lehiaketan edo txapelketen emaitza aldatzea. Horretarako, egoeraren inguruabarrak neurtuko dituzte eta, orobat, atal honetan tipifikatutako arau-haustek egin dituztenek partidaren, probaren edo lehiaketaren emaitzan izandako parte hartzea erabakigarria izan den, eta zer parte-hartze izan duten adingabeek jokabide horietan.

### **33. artikulua.- Zehapenen eraginkortasuna eta kirol-lizentzia eskuratzeko gaitasuna galtzea.-**

1.- Kirol-dopinagatik zehapenak jasotzeak arautegiaren barruko kirol-lizentzien eskubideak lortu ezina edo baliatu ezina ekar dezake, eta, batik bat, kirol-lehiaketa eta jardueretan parte hartu ezina.

2.- Kirol-jarduerak eta -txapelketak antolatzen dituzten erakundeek ontzat joko dituzte beste erakundeek dopinagatik ezarritako zehapenak. Kirolari bati dopinagatik ezarritako edonolako zehapen indarrean egonez gero, ezin du parte hartu Euskal Autonomia Erkidegoko kirol-jardueretan.

# **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

## **34. artikulua.- Birgaitzea.-**

1.- Dopinagatik zehatutako kirolari bat birgaitzeko, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziari eskatu ondoren, egiaztatu beharra dauka legerian aurreikusitako kontrolak egin dituela eta bete duela, halakorik balego, kokatzeko moduan egon beharra, eta osorik bete dituela bai zehapena bai arautegiko neurri osagarri guztiak.

2.- Kirolariak lehiaketa utzi, aipatutako kontrola egin ez eta birgaitu nahi badu, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziari jakinarazi eta lehiaketaz kanpoko kontrolak egin beharko ditu, lehiaketa utzi denetik zehapena osorik bete arte.

## **35. artikulua.- Non bis in idem printzipioaren aplikazioa.-**

1.- Diziplina- edo zehapen-organoak delitu-zantzuak hautematen baditu, eten egingo du prozedura izapidetzea. Halakoetan, berehala jakinaraziko dio Ministerio Fiskalari.

2.- Halaber, diziplina- edo zehapen-organoak eten egingo du prozedura izapidetzea, baldin eta lehen aipatutako hiru ezaugarriak gertatu eta gertakari horiek bide penaletik zigortzen ari direla jakiten badu, eta, hala badagokio, gerora berrekingo zaio prozedurari.

3.- Instruktoreak baldin badaki beste zehapen-prozedura bat egiten ari dela gertaera berengatik, zehapen-organoari berehala jakinarazi eta, prozedura moztu gabe, harremanetan jarriko da organo eskudunarekin, dauden aginduak behar bezala nola aplikatu koordinatzeko.

4.- Gertaera berari administrazio- eta diziplina-zehapena jarri ahal izateko, ezin da zuzenbide-oinarri bera erabili.

## **36. artikulua.- Erantzukizuna azkentzea.-**

Honako hauek dira erantzukizuna guztiz edo partez –zer dagokion kasu bakoitzean– azkentzeko kausak:

- a) Zehapena betetzea.
- b) Arau-haustea preskribatzea. Arau-haustea preskribatzeko baldintzak hurrengo artikuluan daude ezarrita.
- c) Kirolean debekatutako dopin-substantziak edo -metodoak eman, hornitu edo eskura jartzen dituzten pertsonak edo talde antolatuek atzematen, bilatzen eta organismo eskudunen esku uzten laguntzea. Kasu horretan azkentzea partez gertatuko da.
- d) Erruztatuaren edo zehatuaren heriotza.
- e) Pertsona juridiko erruztatua edo zehatua azkentzea.
- f) Zehapena preskribatzea.
- g) Zehapena barkatzea.

## **37. artikulua.- Preskripzioa.-**

1.- Arau-hauste oso larriak 3 urtean preskribatuko dira, eta larriak 2 urtean. Falta oso larriengatik ezarritako zehapenak 3 urtean preskribatuko dira, eta falta larriengatik ezarritakoak 2 urtean.

2.- Pertsona edo erakunde interesdunak dakiela diziplina- edo zehapen-prozedurari ekinez gero eten egingo da arau-hausteen preskripzioa, eta berriro jarriko da martxan hilabetetik gora geldirik egoten bada, ustezko erantzuleari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik. Nolanahi ere, preskripzioak etenda jarraituko du,

# **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

kiroleko dopinaren aurkako ekainaren 21eko 12/2012 Legeko 32. artikuluko arrazoi batengatik eten bada, eta berriro ekingo zaio legez prozedurari berrekin ahal zaionetik hilabete igaro denean.

3.- Era berean, lagundu izanagatik zehapena azkentzeko prozedura hasten bada, zehapenen preskripzio-epea eten, eta berriro ekingo zaio prozedura azkentzerik gabe amaitu eta ebatzi denetik hilabete igaro denean.

## **IX. KAPITULUA**

### **DOPIN-KONTROLARI BURUZKO DATUAK TRATATZEA**

#### **38. artikulua.- Datuen konfidentzialtasuna eta helburua.-**

1.- Dopin-kontrolak egiten dituzten langileek eta federazioko diziplina-organoa osatzen dutenek konfidentzialtasuna eta sekretua gorde behar dute beren lanagatik jakindako kontuei buruz.

2.- Beren zereginetan lortutako datuak, txostenak edo aurrekariak dopin-kontrolak egiteko soilik erabili ahal dira, eta, hala balegokio, arau-hauste administratiboa edo delitua izan daitezkeen egintzak salatzen.

#### **39. artikulua.- Datuen jabearen baimena.-**

1.- Dopin-kontrolari buruzko datuak eta fitxategiak Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera laga ahal zaizkie dopinaren aurkako borrokan ari diren erakunde publikoei edo pribatuei.

2.- Euskal Federaziokoa den edonork, federazioko lizentzia edukitzeagatik bakarrik, bere buruari buruzko datu pertsonal guztiak tratatzeko baimena ematen du. Beraz, Euskal Federazioak dopinaren aurkako borrokan ari diren pertsonari edo erakundeei jakinarazi edo laga ahal dizkie datuak, baldin eta dopina saihesteko, kontrolatzeko edo zehatzeko bada.

3.- Era berean, datuen jabeak jendartean ezagutaraz ditzake ustez dopin-arauak hausteagatik jarritako zehapenak eta kautela-neurriak. Federaturik dagoen edonork onartu eta baimendu behar du bere datu pertsonalak argitaratzea, baldin eta dopinagatik zehapenak edo kautela-neurriak ezarri badizkio Euskal Federazioak edo arlo horretan eskumenak dituen edozein pertsonak edo erakundek, datu horiek laga bazaizkie aurreko paragrafoari jarraituz.

## **X. KAPITULUA**

### **DOPINAREN AURKAKO EUSKAL AGENTZIAREKIKO LANKIDETZA-HITZARMENA**

#### **40. artikulua.- Dopinaren Aurkako Euskal Agentziarekiko lankidetzaren hitzarmena.-**

1.- Euskal Mendizale Federazioak lankidetzaren akordio edo hitzarmen bat sina dezake Dopinaren Aurkako Euskal Agentziarekin, hark dopin-kontrolak egiteaz gain zehatzeko ahala erabil dezan. Halakoetan, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziak izapidetuko ditu ustez dopin-arauak hautsi izanaren diziplina-espedituentz.

2.- Dopinaren Aurkako Arautegi hau aplikatuko da dopin-arauak ustez hautsi izanaren diziplina-espedituetan, Dopinaren Aurkako Euskal Agentziaren zehatzeko ahalaren barruan.

# **EUSKAL MENDIZALE FEDERAZIOAREN** **DOPINAREN AURKAKO ARAUDIA**

## **XEDAPEN GEHIGARRIAK**

**Lehenengoa.-** Epeak zenbatzeko orduan, kontuan hartuko da Euskal Mendizale Federazioaren egoitza dagoen herriko egutegi ofiziala.

**Bigarren.-** Arautegi honetan aipatutako arauak unean-unean indarrean daudenak dira, hau da, Arautegia onartutako unekoak edo etorkizunean hauek ordeztzen dituztenak.

**Hirugarrena.-** Arautegi hau euskaraz eta gaztelaniaz dago argitaratuta. Desadostasunik edo desberdintasunik balego hizkuntza batean edo bestean argitaratutakoaren artean, gaztelaniazkoak izango da lehenetsia, originala hala idatzi baita.

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Arautegi hau indarrean jarri aurretik hasitako dopinaren aurkako prozedurek eta dopinaren arloko diziplina-prozedurek aurreko arautegiari jarraituko diote, non eta interesdunek ez duten nahiago Arautegi honi heldzea, mesedegarriagoa zaielako.

## **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Indargabetuta geratu dira federazioen lehenagoko arautegiak, kontra egiten badiote Dopinaren Aurkako Arautegi honi. Orain arteko arautegietako dopinaren arloko diziplina- eta zehapen-aurreikuspenak (arau-haustek, zehapenak, diziplina-prozedurak eta abar) indargabetu ditu Dopinaren Aurkako Arautegi honek.

## **AZKEN XEDAPENA**

Dopinaren Aurkako Arautegi hau indarrean jarriko da Euskal Federazioaren Batzar Nagusian onartu, Eusko Jaurlaritzako Kirol Zuzendaritzak onartu eta Euskadiko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu ondoren.

**Idazkaria**

**Presidentea**

**ESTIBALIZ KEREXETA FERNANDEZ**

**JOSEBA UGALDE EGAÑA**